

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2021EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Joan den azaroaren 6an Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen 2021eko ekitaldiko Arabako Lurralde Historikoaren fiskalizazio txostena; txostena osatzen dute Arabako Foru Aldundien kontuek (AFA), haren foru erakunde autonomoek (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE), Gaztediaren Foru Erakundea eta Arabako Foru Suhiltzaileak), 7 sozietate publikoek eta foru fundazioek (Arabako Artium, Santa Maria Katedrala, Añanako Gatz Harana eta Kirolaraba).

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du kasu guztietarako, salbuespenik gabe.

2021eko abenduaren 31ko finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak adierazi du zuzena dela. Uneko ekitaldiko superabita, 144,9 milioi eurokoa, 2020ko ekitaldikoa baino 137,2 milioi euro handiagoa izan da, diru-sarrera korronteez gora egin izanaren ondorioz. Halaber, zorpetzea 40,3 milioi euro handitu da.

Epaitegiak, berebat, **aurrekontuaren egonkortasun- eta finantzaren iraunkortasun-helburuei** buruzko iritzia eman du. Ministroen Kontseiluak 2020ko urriaren 6an bertan behera utzi zituen 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako arau fiskalak. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zien AFAk.

Bai Arabako Foru Aldundiak bai gainerako erakundeek **zuzentasunez bete dute beren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen legezko araudia**, nahiz unean uneko akatsak antzeman diren (Diputatuen Kontseiluak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2,3 milioi euroren gastuak baliozkotu izana Kontu-hartzailtzaileen txosten negatiboa jaso ondoren, eta GOFEk, Indesa 2010 SLk, Arabako Kalkulu Zentroa SAK eta Añanako Gatz Harana Fundazioak hainbat zerbitzu eta hornidura kontratatu baitituzte, publikotasun- eta lehia-printzipioak bete gabe).